


6 mantangorri



AZOKA

GIDA-LIBURUA

**Izenburua:** 'Sagutxo Margotxo'.**Egileak:** Quitterie Laborde eta Stephane Millerou.**Egokitzapena:** Unai Zubeldia. **Argitaletxea:** Ikas.

Artelan batetik abiatuta egin daitezke ariketa pila bat. Ikas daiteke margotzeko teknikaren inguruan, eta balia daiteke ere hausnartzeko, hitz-jolasak egiteko, hizkuntza lantzeko eta hiztegia aberasteko. Adin tarte anitzentzako izan daiteke aberatsa halako gida-liburu bat, maila baikoitzak baitauka berarentzako ariketa egokia.

Quitterie Labordek eta Stephane Millerouk egindako *Sagutxo Margotxo* liburuan oinarritzen da ikas euskal pedagogia zerbitzuak argitaratutako gida-libura. Labordek moldatutako artelanak abipuntu hartuta, askotariko ariketak proposatu dituzte.

Hasi al dira eskoletan lan egiten gida-liburuarekin? Harrera ona izan al du?

Bai, bai. Izugarrizko harrera ona izan du. Badira anitz gauza egiteko liburuarekin, gehien bat ilustrazioaren aldetik, baina gero ere ulermena eta... Euskararen aldetik ere aski aberatsa da. Irakasleak oso pozik dira liburuarekin.

Adin mailaren arabera ariketa desberdinak proposatzen ditu gida-liburuak. Nolakoak dira ariketa horiek?

Zikloka banatu dira, adin mailaren arabera. Lehen zikloak hitz jokoaren araberakoak dira, eta beste parteak zerikusi gehiago du arte historiarekin. Lehen zikloa 3-5 urteko haurrentzat da, eta bigarren eta hirugarren zikloa gehiago da helduagoentzat, 10 urte bitartekoentzat. Hala ere edozein zikloko gazteak egin ditzake ariketa horiek.

Haurrei artea gerturatzea balio dezake lanak.



Graxi Irigarai

IKAS XIBEROAKO ANIMATZAILEA

«Haurrei artea gerturatzea da liburuaren aberastasun handiena»

Hori da nire ustez liburuaren aberastasun handiena. Badira hemen liburuan artista famatu asko, arte teknika desberdinak. Eskualde desberdinako artista franko ageri dira; beraz bai, aberatsa da alde horretatik.

Liburuaren berezitasun bat erabilitako artelanak dira, Quitterie Labordek moldatutakoak.

Bai, Labordek erakusten du nola inspiratzen ahal den, obra batzuetatik ideia bat hartzen. Haurrek

ikusi ahal dute irudi batek ukantza keela hamar mila manera. Horretan inplikatzen dira eta gustatzen zaie.

Zein onura ekar diezaizkieke haurrei?

Kultur arloan ezagutza lantzea. Hori alde batetik. Ikusiz ere badirela teknika desberdinak deskribapen aldetik. Hiztegia ere lantzen da, arte-hiztegia indartzen da, euskaraz ere hitz jokoak daude. Maulen ikuskizuna egin genuen, eta horrelako tailer batean parte hartzean, euskaraz harreman sozialak lantzen ahal dira.

Nolako harrera izan zuen ikuskizunak?

Bereziki ongi joan zen. Alde batetik erakusketan parte hartu zuten hurrek, liburuko artisten ezagutzaren inguru jardun ziren, estilo ezberdinak landuz. Denek aitzinetik liburua landu zuten euskaraz, beraz, ezagutzen zuten pixka bat zein tauletan zen nor. Biziki harrera ona izan zuen, dena ongi ikasia zuten gelan, euskaraz mintzatzeko aukera eta eskolen arteko trukaketa ere landu zen.

Nola sortu zen animaziona egiteko aukera?

Ni ikasen lanean ari naiz, Zuberoan duen adarrean. Ikasek Zuberoan argitaratu du liburua. Mauleko librategiak *Sagutxo Margotxo* liburuaren ilustraziooriginalekin era-kusketa bat egn zuen. Guk erakusketa hori baliatu dugu librategian animaziona egiteko. Irakasleek pentsatu dute ez dagoela sobera euskaririk euskal artisten obra ezagutzeko, eta, beraz, animaziona egin genuen ideia horretatik abiatuz. Bildu ginen irakasleak eta Maritxu Etxeto artista gaztea, eta berak proposatu zuen animaziona egitea Txillidaren *Haizearen Orrazia*-ren inguruan, Sagutxo Margotxo pertsonaia integratuz horretan.